



Gorka Moreno Márquez

◆ EHUko IRAKASLEA.

IKUSPEGI-EUSKAL IMMIGRAZIOAREN BEHATOKIA.

Tarte bat zaurgarritasunaren truke

LAN MERKATUAK gaur egungo migrazio fluxuak erabat baldintzatzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) ez da salbuespena eta honen arabera zehazten da gure migrazio eredua. Gure etorkin kopurua ez da oso handia, eurentzat erakargarriak diren lan-sektoreek gurean garrantzi gutxi dutelako, hauen artean nekazaritza, eraikuntza edota turismoa. Horien aldean industriak indarra du eta gehienetan etorkinek, faktore ugari tarteko, arazo asko izaten dituzte bertan lan egiteko.

Industrian nagusiki bertako populazioa kokatzen da eta sektore honek ahalbidetzen du, besteak beste, euskal gizartearen *per capita* errenta handia izatea eta honi lotuta ongizate maila altua ematea. Faktore honi gizartearen zaharkitze prozesua, jaiotze tasa baxua eta bertako emakumeen azken urteetako lan-merkaturatzea gehitzen badizkiogu gure migrazio ereduaren osagaiak prest ditugu eta emaitza ere bai.

Etorkinek etxeko lanetan eta pertsonen zainketan izaten dituzte lan aukera nagusiak, hauexek baitira bertako populazioak dituen gabezi edo behar handienak, sasi-kontziliazioa bideratu eta Ongizate Estatuak dependentzia arloan eskaintzen ez dituen zerbitzuak eskaintzea, alegia.

Ez da kasualitatea EAEn etorkinen lan sektore garrantzitsuena hauxe izatea (%21,3), bizi diren etorkin atzeritarren artean gehiengoa emakumeak izatea

edota latinoamerikar jatorria nagusi izatea. Era berean, eta sektore honen nagusitasunari lotuta, nabarmentzekoa da emakume etorkinek gizonetzkoek baino aukera gehiago izaten dituztela enplegua bilatzeko.

Adibide bat jartzearen, emakume paraguaiarrak dira bigarren okupazio tasa handiena duen kolektiboa, soilik gizonetzko txinatarren atzetik. Hori bai,

emakume horiek dira kontraturik gabe gehien lan egiten dutenak. Beste era batera esanda, lan merkaturan aukera gehiago dute, baina horren truke behin-behinekotasun eta zaurgarritasun handiagoa pairatzen dute.

Orain arte migrazio ereduari buruz hitz egin badugu ere, gizarte ereduari buruz ere orokorrean hitz egin dezakegu eta EAEn agertzen zaiguna argia bezain desorekatua da. Gehiengo batek –bertakoak– ongizate maila altua du eta bere

beharrizanak asetzeko etorkinen zerbitzuak erabiltzen ditu. Gutxiengoa den taldeak –etorkinak– gizarte zaurgarritasun maila handia azaltzen du eta besteei ongizatea eskaintzen die oso baldintza prekarioen truke. Gurean tarte dute, argi baldin badute gure gizarte egituraren azpian dutela lekua.

Hauxe da egoera, horrela kontatu dizuegu eta zalantza daukat ez ote den hurrengo urteetan Europa osoan garatuko den eredu izango. ■

Emakume paraguaiarrak dira bigarren okupazio tasa handiena duen kolektiboa. Hori bai, emakume hauek dira lan kontraturik gabe gehien lan egiten dutenak



Onddoak

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com